

KAZETARITZA-EUSKARAREN TRADIZIOA BERRESKURATZEKO BEHARRA: DATU-BASE HISTORIKO BAT OSATZE ALDERA

Javier Díaz Noci; Jotxo Larrañaga Zubizarreta
Euskal Herriko Unibertsitatea

SARRERA: KAZETARITZAREN INGURUKO EUSKAL DATU-BASE HISTORIKO BAT OSATZEKO
IRIZPIDEAK

1980. hamarkadan Euskal Herriko Unibertsitatean Informazio edo Komunikazio Zientzien Fakultatea eratu zen. Urte batzuen buruan, kazetaritzaren eta ikus-entzunezkoaren euskal lerroak ere sortu ziren, komunikabideen merkatuak —EITB, alegia, 1982an hasi zen— profesional euskaldunak eskatu ahala. Arlo profesionalean zein akademikoan kazetaritzaren inguruko terminologiaren beharra nabaria da. Hainbat kontzeptu izendatzeko —beste hizkuntzetan bezala, bestalde— hitz berriak behar dira, maileguak, asmatutakoak edo deribatuak.

Badago, ordea, beste hitz-iturri bat: tradizioa. Badago euskal kazetaritzarik 1766. urtez geroz, behintzat. Eta, komunikabideak eta komunikazio-praktikak agertu ahala, euskal gizarteak ere fenomeno horiek guztiak aipatu ditu. Hitz batzuk ahaztu dira. Batzuek, agian, merezi dute. Beste batzuek forma ezberdinak hartu dituzte. Batzuk gaur erabiltzen diren beste batzuen oinarriak dira. Guztiak dira, gure ustez, kontuan hartzeko modukoak.

Papertxo honetan, beraz, kazetaritzaren inguruko hitzen bilketa sistematikorako proposamen xume bat plazaratu nahi dugu: nondik hasi, nondik nora joan zitekeen, zer dokumentu hartu ikerketarako, eta adibide batzuk azaldu.

Gure asmoa glosario bat osatzea da. Maria Teresa Cabré irakasleak azpimarratu duenez, ez da berdina terminologia eta espezialitate baten lexikoa, azken hau izanik “profesionalek egiten duten terminoen erabilerari dagokiona”¹, baina, era berean, gure diziplinan (Komunikazioan) lehenago hiztunek, eta batez ere arazoekin lehenik topo egiten duten hiztunek hartutako erabakien eta usadioen berri jakin beharko genuke. Gauza zailagoa da euskaldunen artean, bi komunitate —eta bi tradizio— ezberdinetan banaturik egon direlako bere hiztunak, eta

¹ CABRÉ, M. T. 2002. “Terminologia ala terminologiak? Hizkuntza-espezialitatea ala diziplinarteko alorra?”. *Uztaro*, 40. Bilbo: UEU, 63-74 or.

batzuek zein besteek deliberatutakoa ezberdin samarra izan da askotan, eta, gure kasuan kazetaritza bide modernoak egiten hasi zenean, Espainiako Gerrak lehenago eta Munduko Bigarrenak geroago tradizio bat moztu zutelako. Ondorioz, badago halako tradizio profesional bat ezezagun askoa dena, eta gure ustez berreskuratu beharko genukeena, ez itsu-itsuki jarraitzeko gauza zaharrek omen duten prestigioari atxikitzeko, baizik eta gaurko hitz eta esamolde batzuk nondik datozen jakiteko eta —orain bai— erabaki zientifiko-terminologikoak oinarri sendoagoz hartu ahal izateko. Normalizazioa, gure uste apalean behintzat, jakintza historikotik ere etorriko da. Grina hori gai honetako irakasleoi dagokigu, eta hori da, hain zuzen ere, terminologian adituei eskaini diezaiekeguna: hitz historikoen bilduma komentatu bat, glosario bat, alegia. Lehenago, nahi bada, “hedadura handiko lexiko berezituak” ezagutu, gero “hainbat alorretako berariazko terminologia zientifiko eta teknikoak” hobeto sortu ahal izateko. Nolabait, kazetaritzari buruzko gure glosariotxo hau terminologiaren eta lexiko orokorraren artean dagoen lexiko berezitu —edo lexiko giltzarri— bat da.

Gure sistema deskribapena izango da, beraz. “Terminologia-ikerketak deskribatzeko ere egin daitezke eta, ez nahitaez behintzat, ezer arautzeko”². Abiapuntu gisa planteatzen dugu lehen pauso hau, nahi baino usuago egin diren ekintza araugile derrigorrezkoetatik ihes egin nahirik, asmakuntzak ere (Resurrección María de Azkuek Miguel de Unamunori bidalitako gutun batean salatzen zituen “esas etimologías sport tan de moda hoy”) zabaldu dituztenak.

Gai zehatz honetaz gutxi dira burutu diren ikerketak. Jon Sarasuak bere doktorego-tesian zati bat dedikatu zion, baina ez zuen —hori ere ez zelako helburu nagusia— ustiaketa erabatekoa egin. Hala ere, bere ekarpena baliotsua da dudarik gabe.

Zer esanik ez, eta hori dateke kazetaritza-glosario historiko baterako oinarri nagusietako bat (edozein euskal glosario historiko baterako bezalaxe), *Orotariko Euskal Hiztegia* dugu ekintza nagusia. Koldo Mitxelenak eta Manuel Agud-ek —bai eta haien jarraitzaileek ere— erabilitako metodologia geureganatuko genuke guk ere gure gai zehatzago honen hitz-bilduma historiko kontestualizatua egiterakoan. Denetariko hiztegiak ere izango ditugu arakatze-lehengaiak. Ziur aski hiztegi gehienetan zerbait aurkituko dugu, garai modernokoak ditugulako (XVIII. mendeaz gerokoak), kazetaritza bezala. Jakina, nolako hiztegia den

² CABRÉ, op. cit., 72 or.

kontuan hartuko dugu; Larramendirenetik hasita, batzuk araugileak, beste batzuk historikoak, beste batzuk, azkenik, proposamenezkoak (erdaraz, edo erdaratan, halako hitzaren pareko derrigorrezkoa aurkitu edo asmatu behar dugu euskaraz) aurkituko ditugu. Ikuspuntu deskribatzaile historikoa da, berriz ere, abiapuntuko planteamendua, beti ere adibide dokumentatuez osatuak.

Gaurko komunikabideen estilo-liburuak ere lehen mailako dokumentuak dira kazetarien eguneroko lanbideari buruzko hitzak biltzeko orduan. Badago —izen hori erabiltzen ez bazen ere— halako estilo-liburu bat Gerra aurrean, *Argia* astekariarena. Argitara eman genuen artikulua luzexka batean eta faksimile moduan bertan kontsulta daiteke³. Izan ere, kazetaritzari buruzko testu zehatzak —are gehiago kazetariak berek egindakoak badira— izango ditugu informazio-iturri nagusia. Testu honetan zehar ikusiko ditugu aipamen batzuk.

Baina, batez ere, erabiltzaileek erabilitakoaren berri eman nahi dugu. Azken batean, Cabrék dioenez, “ezin ahanz genezake benetako terminologiagileak erabiltzaileak direla”, eta profesionalak dira, lehenik eta behin, “termino mailegatuarekin topo egiten dutenak edo zerbait izendatzerakoan hutsunea dakusatenak”⁴. Horregatik profesionalek egindako produktu eta dokumentuak arakatu behar ditugu.

Gure asmoa, beraz, ez litzateke izango kazetaritzaren inguruan erabili beharreko hitzak aurkitu edo sortzea, hau da, hiztegi araugile bat egitea, baizik eta euskaldunek garai guztietan erabili izan dituzten hitzak eta esamoldeak aurkitzea, nola eta zertarako erabili diren adieraztea eta ingurunea ere azaltzea, eta gero bakoitzak erabaki beharko du zer puntutaraino erabilgarriak gertatzen zaizkion edo ez. Adibidez: berdin jasoko ditugu *izparringi* eta *egunkari*, bigarrena bada ere gaur egun erabiliena eta lehenengoa, dirudienez, gaizki eratorritako neologismo bat. Forma guztiak ere jasoko ditugu: *gaseta*, *gazeta*, *caseta*, *kaseta* eta *kazeta*, adibidez.

Arlo honetan, ezin baliagarriagoa suertatuko zaizkigu gaur informatikak eskaintzen dizkigun aukerak. Datu-base bat osatu ahala, haren emaitzak web-orri batean eskegi daitezke, gure ikerketaren berri modu dinamikoago batean eginez. Formulario baten bidez han-hemenka

³ DÍAZ NOCI, J. 1994. "Gerra aurreko kazetaritza eta hizkuntz-ereduak". *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*. Donostia, 791-835 or.

⁴ CABRÉ, op. cit., 71 or.

ikerle ezberdinek aurkituriko datuak jaso daitezke. Zer esanik ez, bilaketak ere modu errazago eta azkarrago batez egin daitezke. Beste abantaila bat: bilaketak irizpide gurutzatu batzuen arabera egin daitezke. Forma ezberdinen arteko loturak, erlazionaturiko hitzen artekoak, egin daitezke. Bilaketa linealak alde batera utzita, berreskuratu nahi genukeen datuen masa antola daiteke modu arrazionalagoan.

Testu honen mugak kontuan harturik, besterik gabe arakatu beharreko bi arlotan gure bilaketaren adibide batzuk emango ditugu. Oraingoz alde batera utziko genuke dudarik gabe arakatu beharreko beste arlo bat: Internetekoa. Hemen proposatzen dugun ikerketa egunen batean burutzen bada, arlo hau ere arakatuko genuke. Oraingoz, baina, kazetaritza idatziaren eta ikus-entzuteko komunikabideen inguruko zertzelada batzuk baino ez ditugu emango.

1. ARAKATU BEHARREKO ARLOAK ETA ADIBIDE BATZUK

1.1. PRENTSA IDATZIA

1.1.1. ALDIZKARIEN IZENAK

Kazetaritzarekin zerikusia zuen lehen inprimakia, gaurkotasuneko informazioa eskaini nahi zuena, *Jaun Dauphin cenaren eritassouneco circunstancia berecien errelacionea* dugu, 1766an Baionako Jean Fauvet inprimatzaileak argitara eman zuena. Izenburuak berak dioenez aldizkako argitalpenik izan gabe *errelacione* bat zen. Guk ere, *Euskonews & Media* Interneteko zientzia-aldizkarian, *errelazio* hitza erabili dugu Hondarribiako setioari buruz 1638-1639 urteetan Espainia osoan argitaratu zirenak euskaraz izendatzeko⁵. Guztiak, zer esanik ez, erdaraz, bat izan ezik, baina hura ere gaztelaniazko izenburua zekarrela: *Canción vizcayna en metro y hecha en alabanza de los hechos heroicos de D. Domingo de Heguia*. Hona hemen gaur egun gure Informazio- edo Komunikazio-Zientzien fakultateetan ikasten den Kazetaritzaren Historia ikasgaiari aipatzen diren aldizkarien aurreko noizean behingo ekoizpen horiek izendatzeko hitza, euskal tradizioetik datorrena behintzat: gaurkotua, *errelazione* edo *errelazio*. *Harreman* esanahi bertsua duen *erlazio* hitzetik bereizteko balio beharko luke —semantikoki berezia delako— *errelazio* honek.

Hortik aurrera, aldizkako argitalpen edo gaur egun *aldizkari* deitzen ditugunak sortu ahala, fenomeno hori izendatzeko hitz batzuk erabili izan dituzte euskaldunek. Lehenengoak,

⁵ DÍAZ NOCI, J. 2002. “Hondarribiako setioari buruzko errelazioak (1638-1639): gertakizun baten eraikuntza Austriarren Espainian”. In *Euskonews & Media*, 149. zenbakia, urtarrilak 4-11. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002. [Interneteko helbidea <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0149zkb/frgaia.htm>; 2002an irakurria].

inguruko hizkuntza europar gehienetan bezalaxe⁶, Venezian asmatutako *gazzettatik* eratorriak ditugu. Penintsulan 1608an erabili zen, dakigunez behintzat, lehen aldiz. Euskara hutsez agerturiko aldizkaria —behintzat, aldizkari izateko asmoa azaldu zuena— halakoa dugu: Joseph-Augustin Chahoren *Uscal Herrico Gaseta* (1848). Idazkera honekin erabili zuen Chahok beti: "Uscal–Herrico Gaseta aguertzen da astian–behin [...]. Bakhotchac bere oficio: apheça eliçan, redactorea bere gasetan"⁷.

XIX. mendean zehar, Iparreko euskaldunek behintzat, gehien erabilitako hitza hori dugu. Idazkerak, hala ere, bat baino gehiago izan ziren. Hasiera *gasetak* horrekin batera laster zuzenagoa ematen duen *gazeta* agertu zen. Euskara hutsezko bigarren astekarian —bere egilea lehena zelakoan bazegoen ere "munduko lehemisiko Escualdun Gazeta"⁸ zela zioen, nahiz eta izenburuan *gazeta* era agertu. Berez, idazkera hau jatorritik gertuago dago, esan bezala italieraz *gazzetta* baita idazten, eta euskararen inguruko hizkuntzetan ere euskarazko zoinua errepresentatzen zuten hizkiz ere idazten zen hitza: frantsesez *gazette*⁹ eta gaztelaniaz *gaceta*¹⁰ (baina urte askotan *gazeta* idazkera gomendatu zuen Akademiak¹¹). Dena den, euskal prentsaren goiztari hartan bi grafiak nahasten dira.

(1a) Nahi dusia Escualdun Gazetac segi desan ala es? (...) ¹².

(1b) Gure *Réveil Basque* gasetak egiten ditu urthe berriaren okasionean egiten diren konplimentuak, bere sei ehun errezibizaler eta bertzalde irakurtzen duten guziet (...) ¹³.

(1c) *Eskualduna* gasetaren eguitatez berme zena gastigatua, gachtaguin bat bezala, hirur egunen presundegiaz, bortz ehun libera amandaz eta milla liber domaya-intresez (...) ¹⁴.

Gazeta forma zabaldu zen gehiago. Juan Bautista Agirre Asteasuak erabili zuen XIX. mendean erdian albiste-multzoa (ez aldizkakoa, derrigorrez) adierazteko. Martin Biscailuz-en *Escualdun Gazeta* (1885-1886) Los Angelesko astekariak izenburu hori zeukan:

⁶ Salbuespena alemanierazko *neue zeitunge*n hitza dugu. Kontuan hartu behar dugu, bestalde, Alemanian aldizkako argitalpen informaziokoa XVI. mendean sortu zela, eta Europako lurralde guztietan, aldiz, XVII. ean.

⁷ *Uscal-Herrico Gasetak*, 2. zenbakia, 2. or.

⁸ *Escualdun Gazeta*, 1885eko abenduak 24, 1. alea, 1. or.

⁹ Frantziako lehena 1631ko *Gazette de France* izan zen.

¹⁰ Lehenago ere *gazeta* izenburua zeramaten informazioko inprimaki ez aldizkako batzuk agertu ziren Espainian XVII. mendeko lehen erdian. Espainiako lehen aldizkaria ere *Gazeta de Madrid* (1661) dugu.

¹¹ Espainiako Hizkuntzaren Erret Akademiaren 1732ko *Diccionario de autoridades*: "Es tomado del Italiano *Gazzeta*, que significa esto mismo, por cuya razón se debe escribir con z, y no con c, como hacen algunos".

¹² *Escualdun Gazeta*, 3. alea, 1886ko urtarrilak 16, 1. or.

¹³ *Le Réveil Basque*, 1886ko uztailak 18, 2. zenbakia, 1. or.

¹⁴ *Escualduna*, 1887ko martxoak 15, 1. zenbakia, 1. or.

(2) Gazeta hunen eguileak iskiriacten du Gazeta hau, erakhisteko beste nasioner Escualdunak ser diren eta ser eguiten ahal duten eta posible dela Escuaras ere gazetaren eguitia edosoin beste linguayas besen (...). Gazeta hunen eguileak eguiten du gazeta hau kuriositates, seren eta frango aldiz errana isanis Escuarasko Gazeta bat es othesen eguiten ahal herri huntan. Orai eguiten dut hau modeletsat. Ikhusten badut pagatuko duela imprimatceko gastuyak astean behin eguinen dut bat eta herriko berri gusiak emanen tut eta ere Estado Unidocoak eta Europacoak (...) ¹⁵.

Ipar Euskal Herritik Los Angelesera emigraturiko Jean Pierre Goytinoren *California-ko Eskual Herria* ere *gazeta* bat zen:

- (3a) Bertze nazione guziek beren gazetak badituzte eta gu haimbertze garelarik hedatuak Pacifico-ko kostan ez da yustu baizik yunta guiten denac berriketari baten medioz. Gure intresak -hemen bederen- igualsuak dire eta gure mintzo ederraren medioz bat bertzen herriak yakiten ahal ditugu gure lekhitik hihuitu gabe (...) ¹⁶.
- (3b) Ameriketan gazeta eskualdunak sortzen ari dire, baguira Californian berean bortz mila Eskualdun bederen ¹⁷.

Etimologikoki *gazeta* idazkera zuzenagoa bada ere, gaurko euskaldunen artean *kazeta* forma da gehien erabiltzen dena. *G* beharrean *k* erabiltzen duten formak aspalditxotik daude dokumentatuta. Lehengoa, baina, ez da *kazeta*, *kaseta* baino (baita *caseta* ere):

- (4a) Bi sentimendu horien arabera establituco dugu gure casetaren politica. [...] Zuentzat da caseta berri hau. Horren egilec zuen artean bizi dire, badazkite zuen akhidurac, zuen penac, zuen atseginac (...) ¹⁸.
- (4b) *Escualduna* deitzen den kasetan, M. Berdoliz mintzo zirelarik, nahi zinduke ttipitu horren handitasuna eta fama ona ¹⁹.

Jean Larrasquetek pentsatzen zuen 1914az geroz gero eta gutxiago erabiltzen zela hitza, *jurnal* inposatzen ari baitzen ²⁰; forma iraunkor samarra izan da Iparrean: *Oiarzuna. Eskualdun emazten kaseta* (1947). *Kazeta*, aldiz, erabiliagoa da:

¹⁵*Escualdun Gazeta*, 1885eko abenduak 24, 1. alea, 1. or.

¹⁶*California-ko Eskual Herria*, 1. zenbakia, 1893ko uztailak 15, 1. or.

¹⁷*Ibidem*.

¹⁸*Escualduna*, 1887ko martxoak 15, 1. zenbakia, 1. or.

¹⁹*Le Réveil Basque*, 1887ko martxoaren 27ko zenbakian.

²⁰ “Le mot est tombe en désuétudevers 1914, où la guerre a multiplié, dans la contrée, les lecteurs de journaux, que l’on appelés *jurnal*”. *Apud Orotariko Euskal Hitzegia*, 447. or.

- (5a) Kazetak nahi ala ez nahi, lanak zituen korrale berean hoinbertze ardi mota bakean atxiki beharrez²¹.
- (5b) Ez zen, ez, usu kontent Pochelouren lanaz: sartzen omen zen kazetan erdara sobera, erreklama sobera; aldiz ez aski laborantza-solas, ekonomia-solas, haurren ontsa altxatzeko kontseilu, urrungo berri balios²².
- (5c) Baiño ni ere, euskara ikasteko gai nintzela edo aski erne, ikasiago agertzeko andere haren aurrean, egin ahalak egin nituen kazeta hura irakurtzera, eta ikasteko (...)²³.
- (5d) Sasoin txarrean ukan zuela *Eskualduna* eskutartean: papera ezin ukan Alemanen baimenik gabe; 'ligne de démarcation' famatuak kazetaren hel-eremua hertsitzen; asko irakurlek ezin jasan haren politika...²⁴.
- (5e) Hasi ziren jakin nahiz baginuentz diru-emailerik, artikulu frantsesik ukanen ginuenetz, nor nahik izkiriartzen ahalko zuenetz gure kazetan²⁵.

Hego Euskal Herrian, aldiz, beste termino batzuk nahiago dituzte euskaldunek. *Periodiko* (baita *periodiku* idazkeraz ere) dugu hedatuenetako bat:

- (6a) Mgr. Gieure Bayona'ko obispo jaunak bere periodiko Semaine religieuse'an Euskalerriko fedeatzaz onela diyote: (jakin bear da Bidasoz arunzko euskaldunatzaz esanak direla). [...]Euskaldunak bere izkuntzari eusten diyote, euskeraz itz egiten dute eta beti prentzasa utzi ta euskera ibiltzen dute. Prantsesezko periodikoak ez dituzte nai; orrengatikan periodiko gaistoak kalte gutxi egiten dute bazter zoriontsu oetan²⁶.
- (6b) Gaur Boerrak eta Inguelesak eztabaidan darabilen errialdeko guizon baltzak be, euren izkuntzetan periodikuak daukez (...)²⁷.
- (6c) -¡Ene! ¿Euskeraz bere eguiten dira periodikuak? Bai, guizon; euskeraz berba eguiten dogun leguez, bardiñ... edo *obeto*²⁸.
- (6d) Eskolan gelditu zitzaizkigun uts oyek betetzeko aldan ongiena, periodiku onen txoko ontan ipiñiko degu astero-astero²⁹.
- (6e) (...). Irakurrngai txarra izparringi edo periodiku yantziaz, egunoro ta lotsa barik nai non agertuko yatzu³⁰.

²¹Laffitte, aipatu artikuluan.

²²Ibidem.

²³Testua Larrea, J.M. eta Díez de Ultzurrun, P.: *Nafarroako euskal idazleak* liburuan agertzen da, 135. or.

²⁴Ibidem.

²⁵Lafitte, P.: aipatu "Eskual astekariaren ixtorioa"n.

²⁶*Argia*, 1923ko maiatzak 6, 107. zenbakia.

²⁷Ibidem.

²⁸1902/VIII/21, 31. zenbakia.

²⁹*Argia*, 1921eko apirilak 24, 1. zenbakia.

³⁰*Jaungoiko-Zale*, 1924.eko azaroak 15, 243. zenbakia.

Orokorrean, erdaratik omen zetorrelako alde batera euskaldun batzuek utzi zuten artean behintzat, *paper* hitza erabili zen, ingelesaren antzera (*newspaper*; *berripaper* ere dokumentatuta dago), XIX. mendean (XVIII. mendean ere Pierre d'Urtek proposatzen zuen bere hiztegian frantsesezko *gazzetteren* ordainean). Adibidez, 1883an Donostiako *El Eco de San Sebastián* egunkariak kaleratu zuen gehigarri bat, *¡Erne euskaldúnak! Eco de San Sebastián deritzon, Donostiako paper egunari, Guipuzcoako interes guztien eskudatzalleari eraikisun edo osagarria izeneko orria*. Eta ez da bakarra: 1893ko urriak 28an, 16. zenbakian, *Le Réveil Basquen* agerturiko artikulua batean esaten da *California-ko Eskual Herriak* argitaratu zuela testu bat "komplimenduz kargatua gure paperendako". Hona hemen beste adibide batzuk:

- (8a) Alemania-ko hiri nausian, Berlin-en, Eskualdun paper bat *Euskara* deitzen dena aguertzen da hilabete guzietan. Europako sabant famatuenean iskribatzen dute paper hortan eta hekien artikulua leituak dire, plazerekin, erresuma guzietan³¹.
- (8b) Paper hunen buruzagiak ez du egundaino zangorik sarthu Estados Unidos-etako tribunalean. Paper frantsesaren yabe gisa [*Le Progres*], azken zazpi urte hautan, izan ditugu kitzikatzaile frango³².
- (8c) (...) Elizgizonak izango dira paper onetan iratsi edo eskribiduko dabena geienak, R.M. Azkuetar artezkari dala (...). Erderazko gauzarik ezta ezer agertuko, guztia izango da euskeraz egina³³.
- (8d) Gañera, elizarako liburu bat edo beste izan ezik, beste liburu ta paper guztiak erderazkoak dirala ikusten da (...)³⁴.
- (8e) Zeiñek sinistu bear zuen emen onenbeste euskerazko paper saltzen zirala ikusirik kale guziak gallegoz, naparrez, andaluzez, frantzezez, eta itz batean bukatzeko, euskalerritik kanpoko jendez beteak, emengo fabriketan eta burnibidetan lana eguitera etorriak?³⁵.
- (8f) Gaur, iñoiz baño euskerazko liburu eta paper geyago azaltzen dira, egia da; bañan ez dira bazter danetara iristen³⁶.
- (8g) ARGIA onekintxe batean, izenik gabeko paper bat dijoakie arpidedunei. ¿ORI ZER DAN? euskerazko egunerokoaren aurre-erakusia edo 'muestra'³⁷.

Berri eta *albisteekin* zerikusia zuten hitzak ere proposatu ziren une batean, arrakasta mugatuarekin. Gero lehen Euskaltzainburua izango zen Resurrección María Azkuek alegia,

³¹ *California-ko Eskual Herria*, 1. zenbakia, 1893ko uztailak 15, 1. or.

³² *California-ko Eskual Herria*, 1893ko abenduak 4, 1. or.

³³ *Euskalzale*, 1897ko urtarrilak 3, 1. zenbakia, 1. or.

³⁴ *Ibaizabal*, 1902/I/26, 4. zenbakia.

³⁵ Enrike Elizeche: "Beti euskaldun", *Ibaizabal*, 1903ko martxoak 8, 62. zenbakia.

³⁶ *Argia*, 1921eko maiatzak 1, 1. or.

³⁷ 1929ko uztailaren 14ko *Argian* agerturiko iragarkia.

berrizale samarra zen garaian, gazetak edo periodikoak izendatzeko beste hitz bat proposatu zuen, *albistari*, beste batzuek, aldiz, kazetaria izendatzeko erabili izan dutena (*albistalari* forma ere erabili izan da). Berdin gertatu zen *berrikari* edo *berriketari* hitzarekin, gehienetan berriak jakinarazten duen pertsona izendatzeko balio izan duena baina noizbehinka *komunikabidea* aipatzeko ere erabili izan dena. Michel Elissamburuk *gazetaren* sinonimo gisa erabiltzen zuen, adibidez, bi formetan gainera (*berrikari* zein *berriketari*). *Astean asteango albistaria* zen R. M. Azkueren *Euskalzalaren* azpizenburua, hain zuzen ere:

(9a) IBAIZABAL-ek Erreterian aña irakurle daukan uririk eztago ez Bizkaian ez Gipuzkoan, Bilbo alde batera kendu ezker; eun da berroguetamarretik eun da irurogueira lagunek artzen dabe Erreterian euskerazko albistaria, euskerazkoa dalako (...) ³⁸.

Hogei urte geroago ere esanahi horrekin erabiltzen zen *albistari* hitza:

(9b) Liburu edo albistariaren (periodikuen) antzean alde guztietara barreatzen da (...) ³⁹.

Aldizka kaleratzen ziren informazio-argitalpenek ere beste izen batzuk jaso zituzten gero, ezaugarri horrekin zerikusia zutenak hain zuzen ere. Lehenengo hitza, aldiz, ez zen *aldizkari*, baizik eta aranistek proposatutako neologismo batez osaturiko beste bat: *aldizkingi*, *ingi* baitzen erdarazko edo latinezko jatorriko *paper* berbaren orde erabili zutena.

(10a) Euskerazko egunari bat laxter bearke da, umientzat aldizkingi polit apain bat gaur-gero bear zen, uskurtz edo erlijio idaztiak ugaritu bear ditugu ⁴⁰.

(10b) Beste batzuek berriz erderarik ez omendakite, eta gure aldizkingian euskerazko irakurgai geixeago eskatzen dute ⁴¹.

(10c) Euskeraz baziran aldizkingi politak ta euskeraren alde lanean gogor ari ziranak, baña batzuk jakitunentzako zirala-ta, besteak euskera aditu-eziña zebiltela-ta, edo banak banakak baizik etzitzazkion erriari eskeutaratzen ⁴².

Hortik ere, eta *izpar* edo *izper* ((*h*)*itz barri* edo *berri* berbez osaturikoa edo; 1897ko Arana Goirenen neologismotzat ematen du *Orotariko Euskal Hiztegiak*) hitzekin ere osatua,

³⁸Ibaizabal, 1903ko otsailak 22, 60. zenbakia.

³⁹Cultrera, Samuel. *Gaurko izkillu edo arma*. Donostia, 1922. Itzultzailea: Arbelaitz kaputxinoa. 1917ko *Jesus'en Biotzaren Deya* Bilboko aldizkari erlijiosoan ere zera zioten: "Jesus'en biotza euskaldunak hainbeste maite ditunari opa ta ematen diote bere albistari au".

⁴⁰Ibidem.

⁴¹Aranzazu, 1930eko urtarrila, 13. or.

⁴²Irure, J.M. 1930. "Garitaonandia'tar Bitor jauna. Bere bizitza". *Euskal Esnalea*, 1930eko ekaina, 318. zenbakia.

izparringi edo *izperringi* terminoa, bere garaian nahikotxo fortuna lortu zuena. *Izpar* hitza iraunkor samarra izan zen, 1950eko hamarkadan ere erabiltzen baitzen Hegoan: "Euzkadi'ko izparrak" zen 1919ko *Euzko Deya* aldizkari jeltzaleko eta 1920ko hamarkadako *Arrati'ko Deyakoaren* beste batena, baina 1956ko *Ondarribiko izparrak* aldizkariak ere azaltzen zuen bere izenburuan.

Izparringi (*izparrean* dagoen *a* horrek Mendebaleko jatorria salatzen du) denbora dezentean erabili dute euskaldunek. Hona hemen adibide batzuk, garai, euskalki eta usadio ezberdinetatik jasoak:

- (12a) Entzute aundiko idazle au il dala-ta, izparringiak (periodikuak) lerro asko beterik, luze ta zabalki eman digute bere berri. Bere asmo ta idazti kaltegarrien berri gutxik eman dute ordea (...)⁴³.
- (12b) Lapurdiko izparringi diran 'Eskualduna' eta 'Le Courier' urte guztian argitaltzen badira ere, egiz, autarki garaietako bakarrik dira sortuak (...)⁴⁴.
- (12c) Euskalerriko alde guztietatik, baita erdal errietatik ere (...). Idazle geien-geien oneek, izparringi auxe argitaldu arte ez eben itzik idatzi euzkeraz urrean, bururatu be etxaken olakorik (...). Izparringi auxe da gure sutabo edo kañoi lodia; berau zaindu ta euki daigun beti gertu ta ondo, beronegaz bunbada garratzak jaurtiteko gure arerio dan erdereari⁴⁵.
- (12d) Bide bi geukazala: edo izparringi onek iñuana gustiz-gusti geronek erderaz ipiñi ta geure aizkidetxu arei eruan biarr-geutsela, edo euzkeraz idatzija erderaz be albulan ipiñita EUZKO-DEYA atara biarr-gebala. Baña geuk, eyuzkeraz bakarr-bakarrik argittalduteko EUZKO-DEYA irasi gendubanok, eta geure areyo orrei ederr-egitteko jayo ezkaranak beste bide bat aurkittu geban: EUZKO-DEYA ez argittaldutia, eta orixe egin geban⁴⁶.
- (12e) Ez irakurri, ez da etxekoei irakurten laga, izparringi txarren guzurak agirian. Ipiñi, saltzen dituezan saltokietan ez, al dala, ezer erosi; geure ezagun aizkide ta al dogun gustien eskuetatik kentzen alegindu, ez txuriko bat emon ez iragarki ta il-izparrak ipiñi (...). Orrez gañera izparringi onen alde zintso yokatu bear dogu. Yakiña da Euzkadi'n izparringi onak osoan izateko eusko izakera, oitura ta izkuntzaren aldezkoak izan dabe; au da, katoliko ta eusko-zaleak (...)⁴⁷.
- (12f) Prieto belarrimotz zintzoa ta sinismen gabeko gizona lez, euzko gogua'ren arerio benetakuen lez agertu da (...). Or daukagu Prieto bere burua sozialistetzak agertzen dabena; langillien artian aberatzen aurka zarataka egoten dana; esaten dabena jaubetasuna kendu egin biar diriala, Estadua izan biar dabela gauza guztien jaube. Ta langille gizajuak

⁴³ *Argian* agertu zen 1924ko urriaren 26an, 1. orrialdean, "Anatole France" izenburupean.

⁴⁴ *Eguna*, 1937ko urtarrilak 14, 12. zenbakia, 6. or.

⁴⁵ 1915/II/1.

⁴⁶ 1919/XI/1, 77. zenbakia.

⁴⁷ *Jaungoiko-Zale*, 1931ko abuztuak 15, 403. zenbakia.

berari begira dagozan bitartean, berarena da Bilbao'ko 'El Liberal' izparringia, berak daukaz izparringi orretan 400.000 laurleko ipiñita⁴⁸.

- (12g) Zenbat bidar esan eta entzun ete da, emen Bizkaian be euskeraz bakarrik egindako izparringi asteroko bat bear geunkela, Gipuzkoan *Argia* dauken lez! (...). Orra ba, emen olako izparringia atarateko eragozpen asko ta andiak azpiratu bear dira. Ia-ia ezintzat euki lei izparringi-atarate ori, ain andiak eta ugariak dira eragozpenok⁴⁹.
- (12h) ¿Zenbat Euzko euzkal-izparringi-aberrtzale saltzen dira Bilbao'ko 30.000 euskaldun artian? Berreun (200) baño ez, eta au lotsagarrijetan-be lotsagarrija da (...)⁵⁰.
- (12i) Txapel-gorrijok Nabarra zori-gaiztokuan egin ixan yakuzan basatikerijak, gaurr eztoguz emen idatziko, iñungo basak zikindu bako izparringi onetan agertuteko baño inguingarrijaguak diralako (...) ¡Nabarra gaxua!⁵¹.
- (12j) Zuek ordaintzen dezuten bost liberakin ez degu izparringia ordaintzen⁵².

Izperringi forma, aldiz, askoz gutxiago erabili da:

- (13) Izperringiak (periodikuak) dioten guzia, esanak besterik ez dira⁵³.

Izperringi hitzak egunkaria, aldizkaria eta buletina izendatzeko ere erabili da: *Euzkadi-Irratiaren izparringija edo boletina*, 1947. Lehenago, kasu batean behintzat —argi dago neologismo bat zela— beste hitz bat erabili zen, 1930.eko hamarkadan: Bizkaiko Foru Aldundiak ateratzen zuen *Boletín Agro-Pecuario* delakorako proposatzen duten ordaina *Ingurtija* zen. *Ingurti* hitza ez da, guk dakigunez behintzat, berriz ere erabili. Gaur, aldiz, *berripaper* hitza zabaldu da gehiago, Joxe Aranzabalen eskutik (ingeleseko *newsletter*-en antzekoa edo), buletinak izendatzeko. Kasu kuriosoagoa, hitz jatorraz zein asmatuaz osatua baitzen (eta agian horregatik etorkizun gutxiko berba izan zen) *berrinarki* da: 1918ko bere *Diccionario de Bolsillon* proposatu zuen R. M. Azkuek, *berripaperaren* orde. Ikusi dugunez, berak ere ez zuen erabili bereak aipatzeko.

Ingixto, bestalde, *komikiak* edo, orduko Espainian esaten zenez, *tebeoak* izendatzeko erabili zen Gerra aurrean. Esanahi horrekin erabili zuen berrizalekerietan erortzen ez zen Gregorio Mujikak:

⁴⁸*Ekin*, 1933ko azaroak 25, 95. zenbakia.

⁴⁹1928/V/1.

⁵⁰1933/III/4, 32. zenbakia.

⁵¹1936ko uztailak 30.

⁵²*Azkatasuna*, 1946ko urria.

⁵³*Argia*, 1925eko martxoak 15, 1. or.

- (14) Zenbat eta zenbat neska-mutiko ez ditugu beren eskuetan 'T.B.O.' ta 'Pepito' ta beste onelako ingitxoakin ikusten?. Ba oraindano erdal-ingitxoak ibilli dituzten bezela, aurrera umeentzako euskal ingitxo polit bat izango dutela jakiteak nor poztuko ez du? Euskerarentzat aurrerapen aundi-aundia ez ote da umeak, beren zaletasun bizienetako baten bitartez euskaltzaletzea?. Auxe da, ba, Aita Kaputxinoak darabilkiten asmoa ta poz-pozik zorionduaz, erbesteko ingirik politena baño politagoa izatea opa diogu 'Umeentzako euskal ingitxoa'ri⁵⁴.

Egunari euskaraz aspalditxotik erabilitako hitza dugu. Esanahi ezberdinekin, ordea. Hasieran, *almanakak* edo *egutegiak* (hitz hau geroagokoa da, zer esanik ez) aipatzeko erabili zen Hegoan eta Iparrean. Euskara hutsezko lehen egutegia (Leizarragak *kalendrer*a hitza erabili zuen XVI. mendean berea izendatzeko), José Paulo Ulibarri arabar albaiteroak egin zuena, *Eusquerasco egunaria erderazcotic itzuliya Vizcaya, Guipuzcoa eta Arabaco probintziarentzat 1815garren urterako* zen. Berdin gero XIX. mendean zehar batez ere Iparrean argitaratu ziren almanakak (*armanak*, *almanak* hitzak ere erabili ziren), euskal kazetaritzaren sorrera behar bezala ezagutzeko hain garrantzitsuak izan zirenak. Adibidez, 1852an, Paben, *Egunari berria edo conseillu oneco almanaca* sortu zen. 1879an, Baionan, inprimatu zen *Almanaca berria edo egunaria. Escualdun almanaca edo egunari berria*, 1885ean eta 1886an agertu zen, Lamaignéren inprimategian, Baionan. 1889an, *Almanach Berria edo Ziberouko eta Basa-Nabarreco egunaria. Armanak Uskara edo Ziberouko egunaria* beste adibide bat da.

- 15a) Egunari edo almanak hunen eguileac ez du berce chederic baicen ongui eguita escualdun populu ainhitz maite duenari, guciei ahalaz conseilu onen emaita. Chede horietan publicatu izan du jua diren hirur urthetan escuarazco egunaria (...). Batbederac beguiratcen balitu urthegucietaco egunariac, baluke demboraren buruan escuetan gauza onezco bilduma bat, bethi iracurtceco on litakena⁵⁵.

Egunerokoak izendatzeko ere, noizbehinka, erabiltzen zen *egunari* hitza ere:

- 15b) Euskerazko egunari bat laxter bearko da, umientzat aldizkingi polit apain bat gaur-gero bear zen, uskurtz edo erlijio idaztiak ugaritu bear ditugu⁵⁶.
- 15c) Orai bost urte baño, euskaraz irakurtzeko oitura geiago aal dugu? Ez dut uste. Erdar-egunaria irakurtzeko oitura duten euskaldunek, ¿erraz aal duten oitura utzi dezaten, oitura zailago baten ordez?⁵⁷.

⁵⁴Argia, 1923ko maiatzak 13, 108. zenbakia.

⁵⁵Escualdun laborarien adiskidea..., 1851.

⁵⁶Ibidem.

XX. mendeko lehen herenean, aldiz, *-ko* atzizkiz bukatutako hitzak nahiago zituzten euskaldunek (Hegokoek, behintzat). *Asteroko* (*asteroku* idazkera eufonikoa ere dokumentatua dago) eta *eguneroko* (*izparringiak*) barra-barra agertu ziren hemengo aldizkarietan:

- (16a) Abertzaleak eta batez ere gaztetxuak! Azaldu da 'Poxpolin' derotzaion asterokua. 'T.B.O.' antzekua. Bear genduan, bai, gaztetxuok asterokoren bat edo. L. Mendizabal'dar ixaka euskaltzale benetakuari eskerrak sortu da asteroko ori (...). Lenago bere azaldu zan 'Txistu' deritzaion gaztetxuentzako asterokua. Agertuaz batian, baña, porrot egin eban. 'Poxpolin' asteroko barri oni ez al yako alakorik gertatuko (...)⁵⁸.
- (16b) *Ilustraziñoko* gizaldian bizi gara. Egunerokoen gizaldian. Eguneroko izparringiak goxariaz batera esku gustietara ia eltzen dira (...). Irakurtea ba garrantzitsua da (...). Irakurrigai txarra, Yaungoikoaren etsayak, gogoak betiko galtzeko asmau daben izkillu kaltegarriena dala esanda be, larregi ez genduke esango (...). Irakurrigai txarra izparringi edo *periodiku* yantziaz, egunoro ta lotsa barik nai non agertuko yatzu⁵⁹.
- (16c) Egun oetan ospatzen du 'La Veu de Catalunya'k bere agerpenaren 25'g. urteurrena. Barcelona'n agertu zan, guzia katalanez eta...astero. Orain ere Barcelona'n agertzen da, eta katalanez, baña egunero. Asieran gure antzekoa zen bada. Guzia berdin izateko, ARGIA ere eguneroko egin bear dugu. Noiz? Erantzun, irakurleak⁶⁰.

Euskara hutsezko lehen egunkariaren izena ere izan zen: *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa*. *Eguna* ere *eguneroko* bat izan zen: "EGUNA euzkel-eguneroko barrija" zioen hura kaleratu aurreko iragarki batek.

Denboraren poderioz, eta agian beste esanahiko *egunaritik* ezberdintzeko, *egunkari* hitza inposatu da. Jose Maria Agirre *Lizardik*, euskara hutsezko lehenengoaren egitasmoa azaltzean, Hegoan plazaratu zuen hitza. Baita haren antzerako *astekari* ere, Iparrean askoz lehenagotik erabiltzen zena⁶¹:

- (17) Nere aburua zan astekari-egunkariak BAT egitea. Artara, egunkaria besterik elitzake izango, ta onek, astean bein, ale berezi bat ateratze'aal-luke. Astearen egunetarik bostean, beraz, egunkaria eskuan dezutenaren aundiko litzake. Igandeetan, berriz, ale berezia, ale aundia: au

⁵⁷ Larreko, *Euzkadi*, 1929ko maiatzak 17, 5195 zenbakia.

⁵⁸ *Argia*, 1935eko ekainak 30, 742. zenbakia, 2. or.

⁵⁹ *Jaungoiko-Zale*, 1924ko azaroak 15, 243. zenbakia.

⁶⁰ Muxika, G.: "'La Veu de Catalunya' eta gu", *Argia*, 1924ko otsailak 3, 1. or.

⁶¹ 1910ean Jean Hiriart-Urrutyk halaxe zioen: "Zonbait adixkidek nahi lukete astekaria handitzea". P. Laffittek *Mintzaira, aurpegia: gizon* liburuan aipatua, Jakin Sorta, Ed. Franciscana Aranzazu, 1971, 31-32 or.

da, egun ari dagokion egunerokoa ta, erdian sartuta, beste ainbesteko astekaria. Ale aundi ori egunkari naiz 'Argia'-irakurle guzi ei elduko litzaioke: bere lanik aundiena egunkaria zabaldu ta bazterretarañotzea litzake. Egunkariak, esateko, aste gorrian egunero iru milla ta bosteun ale salduko lituke, ta igandean zazpi, zortzi, agian amar milla ale, berezi oietarik, orrela bere bideak gerorako urratuz. Badirudi, gañera, biak bat ez egiñenean, elitzakela ain erreza astekari-arpeduna egunkari-arpedun egiten⁶².

Arlo pribatuan ere erabiltzen zuen poeta kazetariak. 1929ko maiatzean, *Lizardik* Pablo Fermín Irigarai *Larrekorri* eskatu zion "zuk ain mami darabiltzun naparrera gozo orretan idazki bat biali zarazu, egunkarirako. Egunkari-muestra edo agerki bat nai genduke 'Euskaltzaleak' aren zabalkundea egiteko (...)"⁶³. Tarte batean bi formak erabili ziren. Bazirudien *-kari* atzizkikoak nahien zituztela Iparreko euskaldunek, eta *-eroko* atzizkikoak, ordea, Hegokoek:

(18a) *Etchea. Eskualdun familien ilhabetekaria (1947).*

(18b) *Gazte. Eskualdun Gazteriaren Hilabethekaria (1947).*

(18c) *Irun'go Salletarren Nobiziaduko Illeroko Aldizkaria, 1955.*

(18d) Zortzi orriko illerokotxo bat ateratzea erabaki degu⁶⁴.

Astekari eta *aldizkari* bezalako formak 1920.eko hamarkadan ere dokumentatuta daude, baina 1950.eko hamarkadaz geroztik zabaldu ziren gehienbat:

(19a) Berehala ikasten hasi nintzen, salde modu zenbeit egiteko bederen. Herri hartan bazen emakume aberats bat, saratarra, eta andere huni Baionatik ESKUALDUNA astekaria bialtzen zioten. Ikasi agertu beharrez, edo neri lagundu naiez, astero ematen zidan ESKUALDUNA. Egia errateko, leenbizian guti irakurtzen nuela adigaitza baitzitzaidan⁶⁵.

(19b) Umientzako aldizkari errex, polit, alai onezaz, izenbat aldiz aritu ote gera berriketan!... [...]. Euskalerriko nexka ta mutiltxoentzat aldizkingi atsegin bat [...]. ¡Aupa, laister jaioko dan TXISTU pozgarria!⁶⁶.

(19c) Euskalerriko sartaldean bizi direanentzako, kristiñau aldizkari on bat egin gura geunke⁶⁷.

(19d) Erlijiozko aldizkari edo errebista, edergariduna, euskeraz egiña, Aita Kaputxinoek argitaratua⁶⁸.

(19e) Aldizkari au, euzko gogoak zabalduko izango da⁶⁹.

⁶²Ibidem.

⁶³ *Euzko-Gogoa*, 1956ko urtarrila-otsaila, 94. orrialdea. Erantzuna, bide batez esanda, baiezkoa izan zen, baina *egunkari-muestra* hori galdu zen.

⁶⁴ *Goiz-Argi*, 1. zenbakia, 1958ko urtarrila-otsaila.

⁶⁵ Testua Larrea, J.M. eta Díez de Ultzurrun, P.: *Nafarroako euskal idazleak* liburuan agertzen da, 135. orrialdean.

⁶⁶ *Argia*, 1926ko apirilak 18, 261. zenbakia.

⁶⁷ *Anaitasuna*, 32. zenbakia, 1956ko martxoa-maiatza.

⁶⁸ *Zeruko Argia*, 1954.

Hutsalagoa izan zen modako beste hitz baten fortuna, *errebistarena*:

- (20a) Erliziozko aldizkari edo errebista, edergarriduna, euskeraz egiña, Aita Kaputxinoek argitaratua⁷⁰.
- (20b) 'Arnas' ez dezu errebista; ez, lan metatze-bat baño ez da. Ez du, beraz, noizkorik (...). Errebista ez izan eta...⁷¹.
- (20c) GOIZ-ARGI'k baserritarrena ez ezik, euskaldun guzien errebista izan nai luke, euskaldun guzien periodikoa balitz bezela⁷².

Berdin *ager* aurrizkiarekin zerikusia zuten hitzak ere, *agerbide* eta *agerkari*:

- (21a) Euzkadi Roja. Españi'ko komunist alderdiar agerbidea (1954).
- (21b) Emen Prantzian ateratzen dira lau edo bost agerkari euskera apur batekin⁷³.
- (21c) *Pottolo. Eskualdun haurren agerkaria. Journal des Enfants Basques*, 1950.

Kontzeptu horiekin batera, prentsarekin zerikusirik zuten batzuk ikertzea ere mereziko luke. Hitz asko aldizkarietan ere aipatzen dira, eta ofizioaren orduko usadioen berri ematen digute. Hala nola, *gartilla*, *kartilla* edo *phenti*⁷⁴, edo *moldagintze* (Azkuek bere *Euskalzale* astekarian erabili zuena) edo *irarkola* (Donostiako *Argiakoe*k nahiago zutena). Azken honetatik *irarkera*⁷⁵.

1.1.2. KAZETARIEN IZENAK

Berri edo *barri* hitzekin erlazionatutako izenak izan dira lehen erabilitakoak. Zaharrena *Berri-kridari* da, XVIII. mendeko Pierre d'Urteren hiztegian. Ez du ematen hortik aparte asko erabili izan denik. Harekin batera eta esanahi bertsuarekin ematen duena ("Rumorum aucupes"), *gazetero*, ordea, zabalduago zegoelakoan gaude. Larramendik ere badakar *gazetatik* eratorritako hitzik: *gazeta-zale*, gaztelaniazko *gazetistaren* ordainez (orduan halaxe

⁶⁹ *Ekin*, 1950eko apirila, 1. zenbakia, 2. or.

⁷⁰ *Zeruko Argia*, 1954.

⁷¹ *Arnas*, 1959.

⁷² *Goiz Argi*, 1959.

⁷³ *Argia*, 1947ko maiatza, 9. zenbakia.

⁷⁴ "Ziberouko armanaka eginik da bi gartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa dateke nahidenaren egiteko. Biggerren kartilla edo phentia mintzo dena istoriaz". *Armanak Uskara edo Ziberouko egunaria*, 1906.

⁷⁵ "Zenkaki au rotograbado irarkeraz egiten degun bigarrena da". *Argia*, 1935eko utzailak 7, 1. or.

deitzen zitzaion *gazetak* maiz irakurtzen zuenari). Paper haietan idazten zuenari *gazetagine* deitzen zion.

XIX. mendean, profesionala deitzen da, hasieran, ikusi bezala, *redactore*, frantsesaren erara. Gaur egun bai gaztelaniaz bai frantsesez horixe da hain zuzen ere hitzik zabalduenetakorik (*erredaktore* forma da zabalduena). Kazetaria izendatzeko nahiko gutxi izan dira *idatzi* aditzetik eratorritako hitzak. Horietako bat *idazlari* da, 1917ko *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkarian erabiltzen zutena.

Berriak kontatzen dituen profesionala ere *berri-bidaltzaile*, *berri-bialtzale*, *berriemaile* (gaur erreserbatzen da kazetari-mota bat izendatzeko, atzerritik edo informazioa bidaltzen duena hain zuzen, erdarazko *corresponsal*; esanahi honekin gutxienez 1879tik erabili izan da), *berrikari* (Iparrean) eta *berriketari* (Hegoan) izan da. Beste batzuentzat (Junes Casenave-Hirigilerentzat, adibidez) *berri-biltzaile* edo *bilzale* da, baina hitz honek fortuna eskasa lortu du. *Berri-ekarle* edo *ekartzaile* hitzek, aldiz, tradizio zaharragoa dute, Añibarrok, Urtek eta Lardizabalek erabili izan baitituzte. *Berri-eramaile* eta *berri-garrailari* edo *garraiatzaile*, beste alde batetik, egokiak eman arren, ez dira erabili gaurko *kazetaria*, baizik eta *nuntii apportator* delakoa izendatzeko, zentzu erlijiosoan. *Berrilari* bi zentzutan erabili da: berriak ematen dituen izendatzeko (mezulari edo kazetari izanik, berdina da), edo gauza berrien zalea izendatzeko. Agian anfibologikoa izateagatik fortuna eskasa lortu du gure lanbidearen hiztegi espezializatuan.

Gazetarekin zerikusia zuten hitz bat ere erabili izan zen XIX. mendearen bukaeran, eta ez zen hasiera hartan gaur egun inposatu den *kazetari* (orduan, *gazetari* edo *gasetari*, edo haien aurrekoa erabili izan zen *gasetalari* ere), baizik eta *gazeta-egile*:

(7a) Gazeta eguile jalkhitcen bacira, ni pheredicari bilha niteçu, eta beharbada, nour nahic beçain ountsa erran dioquçut noun den Ifernia, noun den Pharadusia (...) ⁷⁶.

(7b) Gazeta hunen eguileak iskiriacten du Gazeta hau, erakhusteko beste nasioner Escualdunak ser diren eta ser eguiten ahal duten eta posible dela Escuaras ere gazetaren eguitia edosoin beste lenguayas besen (...). Gazeta hunen eguileak eguiten du gazeta hau kuriositates, seren eta frango aldiz errana isanis Escuarasko Gazeta bat es othesen eguiten ahal herri huntan ⁷⁷.

⁷⁶ *Uscal-Herrico Gaseta*, 2. zenbakia, 2. or.

⁷⁷ *Escualdun Gaseta*, 1885.eko abenduak 24, 1. alea, 1. or.

XVIII. eta XIX. mendeetan *egilerekin* batera osaturiko hitzak izan ziren erabilienak, grafia guztiekin: *kazeta-egile* dugu azkena. *Kazeta* grafia inposatuta, hortik zetozen hitzak sortu ziren kazetetan idazten zutenak izendatzeko. Manuel Agudek eta Koldo Mitxelenak zenbatu dute forma ezberdinen frekuentzia⁷⁸: usuen erabilia *kazetari* izan da. *Kazetari* erabili zuen Lafittek; *kasetari* forma arraragoa da. Ofizioa *gazetaritza* edo *kazetaritza* da (azken forma hau izan da beti erabiliena); *kazetagintzak* asmakuntza berriagoa dirudi.

Beste forma batzuk —zorte on gehiegi lortu ez dutenak— *gazeta*, *kazeta* hitzetik eratorriak dira: *gazeta-kridari* (*berri-kridarirekin* batera) proposatu zuen Pierre d’Urte bere garaian; Jean Barbierrek, 1924ko bere *Supaster chokoanen*, *kazeta-moldatzaile*.

Aranisten neologismoek zorte oso ezberdina izan dute. Nahikotxo zabaldu eta erabili zen *izparringi* hitza, adibidez, baino askoz gutxiago *izperkari* edo *izparkari* (*Lizardiren* gustukoa zen, adibidez, Isaac López Mendizabal bere erkideari jarraituz), edo, logika berdina jarraituz, *izparringitza*.

1.1.3. GENEROEN IZENAK PRENTSA IDATZIAN

Albisteak edo *albistak* (azken forma hau, batez ere Mendebaleko euskaraz⁷⁹), baita *albiesteak* ere, dituzte gazetek, errelazioek eta periodikoek lehengaia.

Albisteak (informazioa, orokorrean) eraman eta trukatzeko ekintzari *albistaritza* deitu izan zaio. Badirudi Domingo Agirre izan zela esanahi horrekin erabili zuen lehena. Hortik aurrera, ordea, gutxitan agertzen da testuetan zehazki kazetaritzarekin zerikusirik duen negozioa izendatzeko.

Hitz zaharra da *albistearen* sinonimoa: *berri* edo *barri*. Normalean izenorde gisa erabiltzen den hitza dugu, hala ere erdarazko *noticiaren* esanahiarekin (gaztelaniaz ere, garai batean behintzat, *nuevas* ohi ziren, frantsesez *nouvelles* eta ingelesez *news*) aspaldikoa da. Jose Garate doktoreak hala gogoratzen zuen *RIEVEN*, 1929an: Lope García Salazarrek 1420ko pasadizo bat kontatzen zuen, “se dixo en Vizcaya i en las comarcas de las Vascongadas *cervarri* q(ue) q(ui)ere decir nuevas (...)”. Gure egunetan ere, zorionez, hitza eta esanahia

⁷⁸ *Orotariko Euskal Hiztegia*, 447. or.

mantentzen dira. Hortik eratorritako beste hitz batzuk, ordea, ahaztu egin dituzte euskaldunek: *berri-ñabar* (*slogan* esanahiarekin) erabili zen *Herrian* 1960.eko hamarkadan; hortik aurrera, ezer gutxitan.

Hala ere, oso sustraitua zegoen (eta dagoen) *berri* (edo, jakina, *barri* Mendebalekoa) forma hedatuena zen eta da. Hego Euskal Herrian, XX. mendearen lehen herenean, lehen ikusi bezala *izpar* hitza ere erabili izan zuten idazle eta kazetari batzuek —aranistek, batez ere. *Izparki* forma arraroagoa da. Neologismoa kazetaritza-generoren bati bataio emateko ere balio zuen, adibidez (*h*)*il-izpar* (erdarazko *necrológica*):

Ez irakurri, ez da etxekoei irakurten laga, izparringi txarren guzurrak agirian. Ipiñi, saltzen dituezan saltokietan ez, al dala, ezer erosi; geure ezagun aizkide ta al dogun gustien eskuetatik kentzen alegindu, ez txuriko bat emon ez iragarki ta il-izparrik ipiñi⁸⁰.

Asmatutako izen horretatik eratorri zuen *Lizardik izpartsu* izenordea. Lehenago ere, 1916 beren hiztegian. E. M. Berak eta Isaac López Mendizabalek *berridun* eta *izpardun* proposatzen zituzten. Hain kazetari ona izan zen Evaristo Bustintza *Kirikiñok*, aldiz, “berri bat zekarren pertsona” izendatzeko nahiago zuen. Gaztelaniazko *informativo* izenordea aditzera emateko *albistedun* hitza ere —esanahi berdintsua duena— gutxitan erabili da. Berdin gertatu zen *izparketa* (*informazio*) hitzarekin.

Generoen izendapenak aztertzeke orduan ere sorpresaren bat hartuko genuke. Hitz orokorrak izan dira, gaur arte, erabilienak. XIX. mendeko Ipar Euskal Herrian Pierre Topet *Etchaunek kaseta* hitza erabili zuen “des articles des journaux” aipatzeko. *Artikulu*⁸¹ da erabilienetako bat edozein kazetaritza-testu aipatzeko (*idazkun* ere 1920. hamarkadan erabili zen⁸²), baina gaur egun iritzi-kazetaritzaren genero zehatz bat baino ez du izendatzen. *Albiste*a erresebatzen da normalean testu osatua izendatzeko, *berria*, aldiz, testu hori merezi duen gaia izendatzeko. Gerra aurreko euskal kazetaritzan, aldiz, hitz orokorrak erabili ziren

⁷⁹ Kortazar, Jon; *Lauaxetaren* kazetaritza-lanen argitalpenean: "Albista edo barri txikiok ez dira izaten nahi ta nahi ez, iritzi-zko artikuluak. Gertatu izan danarekin, aktualitatearekin lotura estuagoa izaten dabe, eta inoiz Atletiren partiduen berri ere emoten dauskue".

⁸⁰ *Jaungoiko-Zale*, 1931ko abuztuak 15, 403. zenbakia.

⁸¹ "Hasi ziren jakin nahiz baginuentz diru-emailerik, artikulu frantsesik ukanen ginuenetz, nor nahik izkiriitzen ahalko zuenetz gure kazetan". Lafitte, P.: aipatu "Eskual astekarien ixtorioa"n. Baita Hiriart-Urrutyk ere: "Zer pentsa eskualzale jakitatezko artikuluez?" (P. Laffittek *Mintzaira, aurpegia: gizon* liburuan aipatua, Jakin Sorta, Ed. Franciscana Aranzazu, 1971, 31.-32. or.).

⁸² "Ona zer dion Enrike Beranger'ek "Conscience nationale" idazkun edo artikuluan". Cultrera, op. cit.

aldizkarietan agertzen ziren generoak aipatzeko: *idazki*⁸³ edo *idazti* eta, irakasteko asmoa erakusten duena, *irakurgai*⁸⁴. XX. mendearen hasieran *berrilaster* ere erabili zen, gaztelaniazko *noticia* baino hobe *gacetilla* edo *breve* deritzogun generoa aipatzeko; *Orotariko Euskal Hiztegian* 1901eko aipu bat jasotzen da, *Fedearen Propagacioneco Urtecariatik* aterea: “Egunkarietako berrilaster batek ekharri darokunaz, soldado ruzianoek libratu dituzte”.

Erreportaia edo *erreportajea* (biak erabiltzen dira gaur egun) nahiko genero beranta da; *elkarrizketa* ere bai. *Interview* hitza erabili zen hasieran, edo gaur beste esanahi batekin erabiltzen den beste hitz bat: *hitzaldi*. Horixe zen Gerra aurrean euskaraz egin zen elkarrizketa bakarrean (Paulino Uzkudun boxeolariari egina) bere egileak, Bittor Garitaonandiak, erabili zuena⁸⁵. Bitxiagoa da *elkarrizketa* hitza ez erabiltzea, garai berdinean hain berria zen irratiko genero bat aipatzeko *bakarrizketa* erabiltzen zelako⁸⁶. *Berriketaldi* edo *barriketaldi* hitza, lehen ere modu orokorrean erabiltzen zena, apenas erabili zen kazetaritza-genero berria izendatzeko.

Publizitateari dagokionez, 1920. hamarkadan sorturiko *iragarki* hitzak (*Xenpelar* bertsolariak ere bertso batzuetan bota zuen) fortuna lortu du⁸⁷.

Esanguratsua da nola garai batean gaur egun hain ohiko bihurtu zaigun hitzak sortu ziren aurreko beste batzuen kalte. Adibidez, batez ere Iparreko tradizioan usu erabiltzen zen *abonamenduren*⁸⁸ edo Hegoko *suskritoreren*⁸⁹ ordez (*h*)*arpidetik* eratorrikoak: *harpide*⁹⁰,

⁸³ "Umetxoak gogor irakurri ta irakurtzeaz gañera irakaspen onuratsuenak emateko egoki izango diran gaiak erabiliko dira idazki labur auetan: au da, 'gauzen ikaskizunak' edo umeain ta batez ere euskaldunai, dagozkien ezagutzak azalduaz (...)". *Argia*, 1926ko irailak 26, 284. zenbakia.

⁸⁴ "Irakurgai txarra, Yaungoikoaren etsayak, gogoak betiko galtzeko asmau daben izkillu kaltegarriena dala esanda be, larregi ez genduke esango (...). Irakurgai txarra izparringi edo *periodiku* yantziatz, egunoro ta lotsa barik nai non agertuko yatzu". *Jaungoiko-Zale*, 1924ko azaroak 15, 243. zenbakia.

⁸⁵ "Ezagutzen dezute 'Kojuenea' entzute aundiko jatetxea? Ba, antxen, bere aide Justo Oyarzabal ostalari bikañakin bizi izan da Paulino gure auzokide izan den artean; eta antxen bildu giñan bizkaitar pelotari azkar eta euskaldun jator batzuekin batean, Paulino'kin itzalditxo bat egiteko". Garitaonandia, Bittor: *Argia*, 1925eko martxoak 15, 1. or.

⁸⁶ "Qui tolis, bakarrizketa euskeraz (Alzaga jaunak)" (Radio San Sebastián-en programazioa, *Argiaren* orrialdeetan argitaratua. 1925eko urriaren 8ri dagokiona dugu).

⁸⁷ "Asko ta asko ikusten degu /iragarkia ARGIA'n / Seme polit bat nola dagoen/ Orain jaio bearrian / Donostia'ko uri maitian / Eta Garibai kalia: / Pozez beterik gaude artzeko / Bistatzen zeradenian". *Argia*, 1926ko abuztuak 15, 278. zenbakia.

⁸⁸ "Memento batez asko gazte bazoatzia Ameriketara, eta abiatu gabe gehienek abonamendu bat hartzen zuten, harat eta hemengo berrien ukaiteko. Geroxeago, Algeriako soldadoeri eskualdun gaztek pagatzen zioten 'Herria', orhoitgarri bezala. Eta ondoan haintzek atxiki zuten haren irakurtzeko usaia" (P. Lafitte). "Eskualduna karioegi balinbada, susta ditzagun gure herritarrak hiruz-palau auzoen artean abonatzera" (Hiriart-Urruty).

⁸⁹ "Arpidedun (suskritore) artean sari bereziak". *Ibidem*.

⁹⁰ "Lenengo urterako amar arpide, bigarren urterako sei ta irugarren urterako iru ordaindu dizkigu, ta ez or oxta-oxta, ez, gañezka baizik". *Argia*, 1926ko uztailak 4, 272. zenbakia.

*harpidedun*⁹¹, *harpidetu*⁹² eta *harpidetza*. Gaurko *argitaratu* formaren pareko den *argitaldu* gehiago erabili zen garai batean⁹³, eta antzeko dikotomia gertatu zen *irakurri* eta *irakurtu* hitzen artean⁹⁴. Hegoko eta Iparreko usadioak ere ezberdinak dira kasu batzuetan: hemen *zabaldu* edo *banatu* formak erabili izan dira erdarazko *distribuir* (aldizkari-aleak edo, garai batean esan zenez, *iyekiak*), Iparrean aldiz *hedatu* eta haren deribatuak nahien dituzte (“kazetaren egitea bat da; hedatu ere behar da. Bila beraz hedatzaileak”, zioen Hiriart-Urruty *Eskualdunaren* zuzendariak).

1.2. IKUS-ENTZUTEKO KOMUNIKABIDEAK

1.2.1. IRRATIA

Ikusentzuteko komunikabideak berriagoak dira, inprimatuak baino. Haien aipatzeko hitzak ere asmatu behar dituzte hizkuntza guztiek. Euskara ez zen salbuespena izan, baina, prentsan gertatu ez bezala, inguruko mintzairak prozesu hori egin zuten garai berean burutu zuten.

1920ko hamarkadan zabaltzen da irratia Europa osoan. 1925ean Donostian Sabino Uzelaieta zinegotzia Euskal Herriko lehen emisorea sortu zuen, Radio San Sebastián izenekoa. Idatzizko komunikabide euskarazkoetan fenomeno horretaz arduratzen dira. Eta horrela, *irradi* hitza ere asmatu zen, eta haren garaikide zen *erradio* baztertu dute euskaldunek.

Berez, *irradi* baino lehenago tramankulua erabiltzeko berba asmatu zuen Jose Zabala-Arana *Nabarritzarrak*. *Argia* astekariaren orrialdeetan irakurri ahal izan zen *irratizkin* hitza (orduan *telefono* aipatzeko boladan zegoen *urrutizkiñaren* neologismoaren parekoa) eta haren zergatia:

(22a) *Irratizkiña* zer dan? Ara, esango dizut, ene irakurle. Irratizkiña, erderaz *radio emisora*, ari-gabeko urrutizkiña dezu. Nik asmatua danik ez uste, ordea; ezta berri-berria danik ere; 1916'g. urtetik ona Lopez Mendizabal'dar Ixaka'ren iztegiak 653'garren orrialdean *irratizkin radiografía* edo *marconigrafía* dala idatzita dago-ta. *Radio* euskeraz esateko asmatu ere ezin

⁹¹ "Baña...baña... ¿Ta dirua? TXISTU guk nai bezelakoa jaió ta azi dedin, bi milla arpidedun bear omen dira (...). ¿Guziok arpidedun, guziok TXISTU zale, guziok TXISTU'lari! ¿Bi milla? ¿Baita bost ere!". Ibidem.

⁹² "Oñati'n eta Errenderi'n lagun talde batek bere gain artu du alde batetik dirua bildu eta bestetik TXISTU ume artean sabaltzeko [sic] lana; bai Errenderi'n bezela berak beren eskuz txiki artean banatuaz, bai Oñatiarrak bezela mutikoak, bildutako diruarekin arpidetuz". *Argia*, 1926ko uztailak 4, 272. zenbakia.

⁹³ "Aldizkari au [...] noizik-noizera argitalduko dogu. Al bada illero, illero ezin bada baliteke illabirik baten, baña aldiz-aldi urtengo da". *Ekin*, 1950eko apirila, 1. zenbakia, 2. or.

⁹⁴ *Jaungoiko-Zale*, 1924ko azaroak 15, 243. zenbakia.

diteke itz egokiagorik; nekazariak ezia *irran* ereiten dun bezela, irratizkiña ere itza irran alde guzietara zabaltzen bai du⁹⁵.

(22b) Emen aurrean daukaten tresnatxoia [...]. 'Radio Donostia' irratizkin bikañari zor dizkiogu euskera zabalkunde ta garaiopen abek⁹⁶.

Askoz beranduago bota zuen José Luis Álvarez Enparantza *Txillardegik* (bere *Leturiaren egunkari izkutuan*) *irratitz* hitza, tramankulua aipatzeko. *Radio* ere erabiltzen zen, jakina: "Irratizkiñ edo 'Radioak' ere lanean gogor ari direlako", dio *Nabarriztarrak*, "Radio-onespena" (Radio San Sebastián-en programazioa, *Argiaren* orrialdeetan argitaratua 1925eko urriaren 8an), eta, frantsesaren eraginez (*TSF, Télégraphie sans fils*), *tesefa* Iparrean⁹⁷. *Irrat-* (eta *irrait-* ere bai) aurrizkia zeramaten hitz batzuk ere asmatu ziren irratiazen inguruko gauzak eta fenomenoak izendatzeko: *irragin* eta *irratola* ("Irratizkin au (...) bi zatitan dago: irragiña Txubillo-mendian (Igeldo ez da mendi orren izena, andik ordu-erdiko bidean dagon errairen baizik), eta irratola (estudio) Donosti uri barrenean")⁹⁸, *irragin-gai* ("Irragin-gayak Western Electric Company batzak egiñak dira")⁹⁹, *irradiotsa* ("Bilbao-ko Irradiotsak, Euzkadiko Jaurlaritzaren agindupian: Astero euzko ordua antolatutzen (organizatzen) du: gaurko txandea zuretzat da")¹⁰⁰, *irratikizun* ("Euzkel-irratikizunak bertan jarri ta euzkeldun guztijak jakin-erazoteko, Euzkadi-barruko euzkaldunai")¹⁰¹ eta gaur egun ere erabiltzen den bakarra: *irratsaio*:

(23) Ona euskararen aldeko lan eder bat: irratsayoak (...). Bi gizon leyatu dira zein baño zein geyago euskal irratsayo oyek bear duten aunditasuna izan dezaten. Artzelus'tar Ander 'Luzear' eta Zubimendi'tar Joseba ixilpeko lana izanda bi euskeltzale jator oyena, baño geyenetan gertatzen dan bezela ixilpekoa izan arren zenbaiten lan zaratatsu ta agerrtu nayeko baño garrantzitsuagoa izan da. Ez degu iñoiz neurtuko euskal-irratsayo orren bidez Luzear eta Zubimendi'k euskerari egiten dien ona (...). Eta astean beingo irratsayoakin eungarreneraño iritxi dira¹⁰².

Irratzaio gisa ere dokumentatua dago:

⁹⁵ *Nabarriztarra, Argia*, 1925eko urriak 4, 233. zenbakia.

⁹⁶ *Euzko*, 1932ko uztailak 25.

⁹⁷ *Aintzina*, 1934ko azaroa, 1. zenbakia.

⁹⁸ *Argia*, 1926ko martxoak 7, 255. zenbakia.

⁹⁹ *Argia*, 1926ko martxoak 7, 255. zenbakia.

¹⁰⁰ *Tierra Vasca*, 1937ko apirilak 25, 114. zenbakia.

¹⁰¹ *Euzko-Deya*, 1950eko martxoak 15, 321. zenbakia, 12. or.

¹⁰² *Argia*, 1934ko urtarrilak 28, 3. or.

(24) Amaikatu lan ederr egin dabe (...) Donostia'ko irratzayoen bittarrez euzkerearen alde, euzko-abesti ta euzko-eresi alde", zeren eta "eurak izan dozak euzko-irratzayo gustijak antolatu dabezanak"¹⁰³.

Irrasaio forma ere erabili izan da, askoz gutxiago bada ere. *Irratsaio-txango* ere proposatu zuen Nemesio Etxanizek.

Bitxiena, ordea, zera izan zen, aditz bat ere asmatzea, *irradatu* ("iru aneurkin [km.] luze dan iristen da irragiñera, ta onek ortzai [eter] bidez alde guzietara irradaten du"¹⁰⁴), kontuan harturik *irran* aditzetik eratorriak zirela *irratizkin* eta antzekoak. Gaur egun ere badirudi nahiago dugula *emititu* neologismoa *irradi* neologismoaren atzean dagoen *irran* hitz jatorra baino. *Irradaka* ("bailando en círculo"; "emitiendo cierto sonido"; "emitiendo radiaciones"; ordenu honetan ematen ditu *Orotariko Euskal Hiztegiak* hitzaren esanahiak) ahaztuxe daukagu gaur egun.

Irrati geroxeago inposatu zen, 1940. hamarkadaz geroztik (eta *radio* formarekin konbinatua). 1946ko abenduaren 20an hasi zen emititzen Resistencia Vasca-ko Euzkadi Irratia. 1947an argitaratu zen lehen aldiz *Euzkadi-Irratiaren izparringija edo boletina*, eta urte berdinean ekintza bat burutu zen Donostian:

(25) "La Resistencia Vasca convirtió por unos momentos en Donostia Irratija"¹⁰⁵.

Gaur egun ia ezinezkoa da euskaraz idatzita "radio" hitza aurkitzea (hainbat azpieuskalkitan edo tokian tokiko hizkeran mantentzen bada ere, jakina: Ondarroako *Radixu Irratia* adibidez). Irratia da nagusitu dena; baina komunikabide honekin lotura zuten bat baino gehiagok, oraintxe 20-25 urte, *irratia* eta *radioa* hitzak erabiltzen zituzten. Hala nola, gerra ondoren, Donostiako egunkarietan idazten aritu izan zen Maritxu Mayor Lizarbe kazetariari *Zeruko Argian* eginiko elkarrizketan¹⁰⁶ hauxe dio elkarrizketatuak:

(25a) Radio rako ta prantsez eta ingeles izkuntzak Gobernu-enkarguz erderatzeak ematen dizkidan lanekin batuta (...) ¹⁰⁷.

¹⁰³ *Euzko*, 1934ko martxoak 30, 87. zenbakia.

¹⁰⁴ *Argia*, 1926ko martxoak 7, 255. zenbakia.

¹⁰⁵ *Alderdi*, 1. zenbakia, 1947ko apirila.

¹⁰⁶ Iparragirre, Pilar 2001. *60ko hamarkadako hitzak. Elkarrizketa hautatuak*. Donostia: Argia, 20. or.

¹⁰⁷ *Zeruko Argia*, 1964ko jorraillaren 5ean argitaratutako elkarrizketa.

Zeruko Argian bertan, oraingoan 1965eko lorailaren 2an argitara emandako elkarrizketa batean, kazetariak *irratia* erabiltzen du bere idazpuruan:

(25b) Agustin Zubikarai eta Itsas Larrialdietarako irratia.

Baina erantzunetan Agustin ondarrutarrak “irratia” eta “radioa” biak batenaz beste erabiltzen ditu:

(25c) Len ermita zaarra egoan tokian, badago orain ondarrutarrentzat premiñazko dan beste etxe bat: Itxasorako irratia, radioa.

Aurrera eginez, berriz, bada pasarte bat *radio* hutsik erabiltzen duena:

(26) Urte batzuk dira Mercadal itxasontzia estu ebillan. Ez ekian Ondarruko radio au egoanik eta Igeldora deika ziardun. Ikusten neben Igeldok ezeutsala erantzuten. Sayatu nintzen...

Irratiaren inguruko gauzak izendatzeko erro ezberdineko hitzen artean gutxi dira fortuna lortu dutenak. *Egitarau*, adibidez, Zuzenbideko testu bakan batzuetan ere erabili izan zela:

(27) Eungarren ori ez dute ordea nolanaikoa egin nai, ezta edozein garaitan ere. Igandean egingo dute eta bi orduko iraupena izango du: ordubietan asi ta 4'retan amaitu. Egitaraua osatzeko gayik ederrenetakoak dituzte (...) ¹⁰⁸.

Beste bat *belarriko* dugu

(28) Lengo eguneko arratsaldean berunarria gertu ta belarrikoa jarri nuaneke nabaitu nuan poza! [...] Eta berriz ere entzungo al dizugu Donosti'n bizi geranok irratizkiñaren bidez ¹⁰⁹.

Gaur, aldiz, arrotz samarrak gertatuko litzaizkiguke *goi-(h)ari* (“Goi-aria buruizko bi zatikako luzien artean dago lurretik 4o neurkin (m.) goyak” ¹¹⁰, *ortzai* (“iru aneurkin (km.) luze dan

¹⁰⁸ *Euzko*, 1934ko martxoak 30, 87. zenbakia.

¹⁰⁹ *Ibidem*.

¹¹⁰ *Argia*, 1926ko martxoak 7, 255. zenbakia.

iristen da irragiñera, ta onek ortzai (eter) bidez alde guzietara irradaten du”) ¹¹¹ eta *ozka* “Erabiltzen dun ortzai-ozka (onda) 343 neurkiñekoa da (...)” ¹¹².

1.2.2. TELEBISTA

Telebistaren bizitza laburrak ez digu uzten prentsak edo irratiak aukeran jartzen dizkiguten hitzen azterketa egiteko modu bera. *Argia* eta *Jakin* erabili ditugu telebistaren gaineko hitzen iturburu modura, profesionalek eta adituek esandako terminoak arakatuz. Horren ondoren, ETBko esku-liburua izan dugu erreferentzia, baita barneko hitz-zerrenda bat ere, teknikaren aldaketengatik hainbat kontzeptuk izan duten bilakaera dela-eta.

Bi erataria edo hirura esan ohi diren hitzen zerrenda aipatuz hasiko gara. Hala nola,

- *produktorak* edo *ekoiztetxeak*,

(29) Konpetentzia geroz eta profesinaltasun gehiagoz asumitzen dute produktora pribatuek, ¹¹³

(29a) Azken urteotan lortutako arrakastak gure ekoiztetxe pribatu zenbait... , ¹¹⁴

- *audientzia-entzulego-ikuslego, hartzailego*,

(30) Dagokion audientziaren proportzio-zatiaren ¹¹⁵

(31a) ETBren entzulegoa (share, telebista kontsumoaren ehunekoa) ¹¹⁶

(31b) Bikoiztu egin du bere ikuslegoa ¹¹⁷

(31c) Edukinen arabera hartzailegoa zatitu egin da. ¹¹⁸

- *ikus-entzunezko edo audiobisual*,

(32) Artikulu hau Hego Euskal Herriko ikus-entzunezko industriaren azken urteotako... ¹¹⁹

(32a) Audiobisualaren sektorea bere osotasunean aztertze... ¹²⁰

- *telesail-teleserie*,

(33) Izan ere, filmeei eta telesailei dedikaturiko programen multzoa puztu egin da... ¹²¹

(33a) Gauza berbera esan dezakegu *Goenkale* moduko teleserie bati buruz... ¹²²

¹¹¹ *Argia*, 1926ko martxoak 7, 255. zenbakia.

¹¹² *Argia*, 1926ko martxoak 7, 255. zenbakia.

¹¹³ *Jakin* 1997ko martxoa-apirila, 99. zenbakia

¹¹⁴ *Jakin* 1997ko martxoa-apirila, 99. zenbakia

¹¹⁵ *Jakin* 1997ko martxoa-apirila, 99. zenbakia

¹¹⁶ *Jakin* 1997ko martxoa-apirila, 99. zenbakia

¹¹⁷ *Jakin* 1997ko martxoa-apirila, 99. zenbakia

¹¹⁸ *Jakin* 1995ko uztaila-abuztua 89. zenbakia

¹¹⁹ *Jakin* 1997ko martxoa-apirila, 99. zenbakia

¹²⁰ *Jakin* 1997ko martxoa-apirila, 99. zenbakia

¹²¹ *Jakin* 1995ko uztaila-abuztua 89. zenbakia

- *ekoizpen-produkzio*,

(34) Ikus-entzunezko ekoizpenak subentzionatu beharrean,¹²³

(34a) Orain telebista guztien joera produkzioa kanpora ateratzearena da.¹²⁴

-*herri telebista-telebista lokala*

(35) Herri Telebista guztiak gertuko informazioa eskaintzeko jaio ziren.¹²⁵

(35a) Agian, aurrerago ekiteko, telebista lokalen federakundea suspertzea geratuko litzateke...¹²⁶

1.2.2.1. ESKU-LIBURUAZ GAINDI

Beste telebistetan ez bezala, gainera, ETBko esku-liburuan (1992) ez dator telebistako hitzen aipamenik ere. Horregatik, Manu Arrasatek orain hamar urte *Euskarazko Albistegietako Esku-Liburua* argitaratu zuenetik, ETBn egarri dira telebistako hitzen glosario historikoa egiteko eta hustasun hori betetzeko.

Hala eta guztiz ere, ETBko hainbat hitzen erabileraren argitaratu gabeko zirriborro bat eskuratu dugun heinean¹²⁷, aukera jarri zaigu bidea jorratzen hasteko. ETBko kazetari, tekniko eta langile oren eguneroko usadioan erabiltzen dituzten 71 terminoen zerrenda-gida osatuz, Euskara Sailekoek bidea markatu nahi izan dute eta, besterik ezean, ildo nagusiak azpimarratuko dira hemen, ezin baita gaur-gaurkoz, eta dagoen material urriarekin, mapa osoa bilduko lukeen glosario historikoa egin, ezta oinarritzorik ere.

1.2.2.2. TEKNIKAREN BILAKAERA

Ez dakigu eboluzio teknikoak zer eragin izango duen aurrerantzean hitzen erabileran, baina hainbat makina berritan oinarritutako hitzak definitzen dutena telebistako zenbait funtzio, hori bai, ziurta dezakegu.

Ado, *aston* eta *chyron* bezalako hitzak merkatuko markak dira eta bakoitzak funtzio zehatza du telebistan. Hala nola, ETBko Euskara Saileko zirriborrotik hartzen dugunaren arabera,

(36) Ado: *Bideoetan efektu digitalak sortzeko makina.*

¹²² *Jakin* 1997ko martxoa-apirila, 99. zenbakia

¹²³ *Jakin* 1997ko martxoa-apirila, 99. zenbakia

¹²⁴ *Jakin* 1997ko martxoa-apirila, 99. zenbakia

¹²⁵ *Argia* 1994ko abenduak 4, 1.507 zenbakia

¹²⁶ *Argia* 1990ko martxoaren 11, 1.283 zenbakia

¹²⁷ ETBko Euskara Sailean osatutako *Telebistaren gaineko hitzen zerrenda* (zirriborroa).

Edota

(37) Aston: gaininpresioak sortzeko makina, idazkun makina.

Edo

(38) Chyron: gaininpresioa. Albisteetako datuak emateko (data, tokia, berri emailea, ikusten den pertsonaren izena eta kargua...) pantailan jartzen den idazkuna.

Beste izen multzoa osatzeko ingelerazko siglekin datozenak dira. Zuzen zuzenean, funtzioa adierazten dutelako erabiltzen dira. Horra hor,

(39) DLS *Digital Library Sistem. Ordenagailuan sortutako irudi finkoa, marrazkiz, argazkiz edo/ eta idazkunez osatua.*

(40) RX *Tx / Rx (Transmit / Receive). Kanpoko irudi eta soinu seinaleak jaso eta grabatzeko tokia.*

(41) TC (Teze) *Time Code. Zortzi zenbakiko kodea, bideo zintako koadro bakoitzaren kokalekua ordu, minutu, segundu eta koadrotan adierazten duena.*

(42) VTR (ubete-erreak) *Video Taping Recording. Zuzeneko programa baten barruan doazen bideoak emisioan sartzeko tokia.*

Egia da TC bezalako siglak “Denbora Kodea” bezalako hitzekin definitu daitezkeela euskaraz (burua gehiegi berotu gabe itzulita) baina ez da horrela egin, oraingoz behintzat.

Makineria berria sartzen den eran, eta litekeena da uste baino arinago izateak, markak eta funtzioak aldatzen diren neurrian, horrelaxe aldatuko dira terminoak ere. Gaur egun DAT ezaguna da (Digital Audio Tape) baita DLSa ere, orain urte gutxi hain ezagunak ez zirenak. ENG, hain ezaguna dena eskolan eta lanean ere (kalean grabaketa egiteko oinarrizko ekipoa adierazten duena) denbora gutxi barru beste era batera esango da. “ENGa bidali” edo “ENGan joan” ez dira kazetarien eta produktzioen usadioan sartuko urte batzuetara. Beste esaldi-joko berriak hartuko dio txanda.

Era honetan esan, ziur da *start* hitza erabiltzen jarraituko dela telebistan (*errealizadoreak VTRetako operadoreari ematen dion agindua, “play” tekla saka dezan*) baina editatze prozesuan gaur egun ezaguna den *starta sartu* hitz jokoak azken egunak izango al ditu digitalizazioak eraginda, ala eutsi egingo dio gaur betetzen duen funtzioari?

(43) Editatzen prozesuan starta sartu: irudien aurretik, atzerako zenbaketa sartu.

Gauza bera esan daiteke VTR (lehen esanda bezala *Video Tape Recording*) siglekin eta betetzen duen funtzioarekin.

Ikusteko dago digitalizazioak zer aldaketa dakarkien hitzen erabileran. Izan ere, sistema analogikoekin dabiltzan telebistak, euskarazko telebista lokal gehienek, termino hauek erabiltzen jarraituko dute. ETBren kasuan, aldiz, digitalizazio prozesuan bete betean murgilduta dabilenez, badirudi makineria berriaren erabilerak berezko aldaketa ekarraziko duela.

Bada, azkenik, beste hitz multzo handi bezain heterogenea, eboluzio teknikoaz gain jarraituko duena bere horretan, gaur egun duen hitzarekin eta esanahiarekin, usadioak aldatzen ez badu behintzat. Hala nola baten batzuk aipatzearen, *aurkezpen, bikoizketa, deialdi, dekoratu, gidoilari, sarrera* eta antzekoak.

ALBISTEGIETAKO TESTU MOTAK

KAIXOA. Aurkezlearen lehen hitzak, ikuslea agurtzeko.

TITULARRAK. Eguneko lauzpabost berri nabarmenen laburpenak. Aurkezlea testua irakurtzen ari den bitartean, irudi hautatuen zazpi bat segundoko zatiak erakusten dira pantailan, baterian editatuta.

ATARIKOA. Eguneko berri aipagarriren baten aurrerapen laburra. Aurkezlea testua irakurtzen ari den bitartean, pantailan albistearen irudiak ikusten dira.

SARRERA. Albistearen aurkezpena egiteko testua.

BIDEO OSOA. Albistea osorik kontatzen duen testua.

OFFA. Lokuziorik gabeko bideoa, emititzeko unean bertan aurkezleak testuz hornitzen duena. Offak erabiltzeko hiru modu nagusi daude. Lehena da aurkezleak sarrera labur bat egitea, eta horren ondoren offa sartzea. Bigarrena *off jarraia* da, bideo oso baten ostean sartzen dena. Hirugarrenik, amaieran korte bat duten offak daude.

AGURRA. Albistegia ixteko testua.

TELEBISTAKO FORMATUAK

Magazine	Magazin
Talk show	Solas saio
Concurso	Lehiaketa

Documental	Dokumental
People show	Jendeen saio
Late night show	Gau beranduko saio

2. KONKLUSIOAK

Emandakoak adibide batzuk baino ez dira. Ustiaketa sistematikoago bat, ez dugu dudarik, emaitza hobekak emango lituzke. Pentsatzen dugu saiatzea merezi duela, ahaztu samartuta dugun tradizioa berreskuratzea eta gaurko gure ikasleei —biharko profesionalei, alegia— transmititzea ere merezi duelako. Horrek eskatzen du ikerketa sistematiko bat, talde-lana, burutzea. Teknologia berriek laguntzen digute, bai bilketa bera egiteko orduan —arakatu beharreko hainbat material digitalizatu diren heinean bilaketak errazago eta azkarragoak dira— bai eskaintzeko orduan ere: datuak jaso eta kontrastatu ahala Interneten bitartez eskaini daitezke, paperera (edo euskarri fisiko digitalera beste hiztegi edo liburu batzuekin egin den bezalaxe) pasatu baino lehenago. Hona gure ekarpen balizkoa: ziur aski ez dugu euskal hitz asko “deskubrituko”, eta, kopuru aldetik behintzat, gauza berri gutxi ekarriko dugu, baina gure arlo profesionaletik zehazki begiratutako hitz-bilduma edo glosario historiko hau eginez nahikoa ekarpen egingo genukeela uste dugu.

Ikusteko dago beraz, denbora gutxi barru izango dugu aldaketa, lexiko multzo berriaren usadioa eta erabilera. Eboluzio horri gaineratik jarraitzea lan interesgarria bezain beharrezkoa deritzogu komunikazioko euskal glosario historikoaren esparruan. Komunikazio hau horren adierazle eta frogatzaile da. Izan ere, guk ohikotzat ematen ditugun hitzak eta terminoak ez dira euskaraz berdin esaten eta idazten toki eta esparru guztietan, nahiz eta horrela pentsatu. Begira bestela, Iparraldeko *Herria* aldizkarian¹²⁸ Piarres Lafitte idazle-kazetariak 1963ko uztailearen hamazazpian zeren gainean aritu zen honako idazpuruarekin: “*Radio eta telebista noren eskuetan ezar?*”. Bada zer aztertua, beraz.

¹²⁸ Lafitte Piarres. “Radio eta telebista noren eskuetan ezar?”, *Herria*, 1963ko uztaileak 18. *Kazetari-lan hautatuak*. Piarres Lafitte. Pako Sudupek prestatua. Donostia: Elkar, 2002.